



Soldata-arrakala honela ateratzen da: gizonen ordainsariaren batezbestekoari emakumeen ordainsariaren batezbestekoa kendu eta emaitza gizonen ordainsariaren batezbestekoaz zatitu.

Zein da soldata-arrakalaren irismena?

2018ko urteko soldata-egituraren urteko inkestaren arabera (argitaratutako azken datua), arrakala % 21,42 ingurukoa da.



Zein da arrakalaren arrazoia?

- Lan-ordu gutxiago egitea (lanaldi murrizketak, lanaldi partzialak...). Hala ere, soldata-arrakala % 10,50 inguruan mantentzen da laneko ordukako soldata-aldea neurtzen denean.
- Soldata-osagarri gutxiago jasotzea.
- Lanbide-segregazio horizontala: emakumeen % 60k sei sektoretan soilik ematen dituzte zerbitzuak.
- Segregazio bertikala (zoru itsaskorra edo kristalezko sabaia).
- Soldata-arrakala berbera.